

ARAUDIA



KAXTRAIL MENDI

LASTERKETA

2026

AURKIBIDEA

1.ANTOLAKUNTZA	2
2.EGUNA ETA ORDUA	2
3.IBILBIDEA	2
3.1.IBILBIDE OFIZIALA BANAKA	2
3.2.IBILBIDE OFIZIALA BINAKA	2
3.3.SEINALIZAZIOA	2
3.4.IBILBIDEKO KONTROLAK ETA DENBORA MUGAK	3
3.5.LASTERKETA BERTAN BEHEITI UZTEA	3
3.6.LASTERKETA UZTEKO LEKUAK	4
3.7.IBILBIDE ALDAKETA	4
4.PARTE HARTZEA	4
4.1.BALDINTZA OROKORRA	4
4.2.IZEN EMATEAK	5
5.KATEGORIAK ETA LEHIAKETAK	5
6.SARIAK	5
7.DORTSALEN BANAKETA ETA KONTSIGNA	6
7.1.DORTSAL BANAKETA	6
7.2.KONTSIGNA	6
8.EZINBERTZEKO MATERIALA	6
9.ANOA GUNEAK	7
10.INGURUMENA	8
11.OSASUN ZERBITZUAK	8
12.SEGURTASUNA	8
13.ERANTZUKIZUNAK	8
14.IRUDI ESKUBIDEAK	9
16.ATZENDU EDO GALDUTAKO OBJEKTUAK	9

Lasterketa bi modalitate ezberdinetan egiteko aukera egonen da:

- 1. BANAKA:** Lasterketa honek 45 kilometro eta 2.800 metroko desnibel positiboa izanen ditu Baztango iparraldeko paraje zoragarrietatik barna (Gorramendi, Urritzate, Iparla, Auza eta Burga). Hasiera eta helmuga puntuak Erratzuko plazan izanen dira.
- 2. BINAKA:** Banaka eginen den lasterketaren ibilbide berdina edukiko du, baina bikoteka egiteko aukera izanen da. Lehenengo bikoteak Erratzuko plazatik hasi eta Izpegirainoko bidea eginen du eta bigarren partaideak Izpegitik hasi eta Erratzuko plazarainokoa.

1.ANTOLAKUNTZA

Kaxtrail mendi lasterketa Erratzuko herriaren auzolanean antolatutako lasterketa da, bertako lagun on baten oroimenez, Kaxtel.

2.EGUNA ETA ORDUA

Lasterketa, **2026ko urriaren 24an** ospatuko da Erratzun (Baztan-Nafarroa), **goizeko 8:00tan** emanen zaio irteera lasterketari, bai banakako moduan zein bikotekoan ere. Ezinbertzekoa izango da ANTOLAKUNTZAK emandako argibide denak jarraitzea.

3.IBILBIDEA

3.1.IBILBIDE OFIZIALA BANAKA

Lasterketa honek 45km eta 2.800 metroko desnibel positiboa izanen du, Erratzuko plazan hasmenta eta akabaila izanen duelarik. Ibilbidearen gaineko informazio gehiago hemen: [tracka](#).

3.2.IBILBIDE OFIZIALA BINAKA

Binaka eginen den ibilbideak banakakoaren berdina izanen da, nahiz eta erreleboak Izpegiko mendatean eginen diren. Lehenengo lasterkariak nahitaez Izpegin utzi beharko du lasterketa, hots, ezinen du bigarren zatia egin. Hala ere, helmugarako 300 m falta direnean, errelebo bikoteko bigarren partaide hori lasterketan sar daiteke berriz, helmugan biak elkarrekin sartzeko.

Honela bada hau da partaide bakoitzak egin beharko duen lana:

1.partaideak: Erratzutik hasi eta Izpegin akitu. Zati honek 23km eta 1.700ko desnibel positiboa izanen du, 1.300 metroko desnibel negatiboa izanik. Informazio gehiago: [tracka](#)

2.partaideak: Izpegin hasi eta Erratzun akitu. Zati honek 22km eta 1.100ko desnibel positiboa izanen du, 1.500 metroko desnibel negatiboa izanik. Informazio gehiago: [tracka](#)

3.3.SEINALIZAZIOA

Seinaleztapena probako kartel, banderatxo eta zintarekin eginen da. Ahal den neurrian markak distantzia erregular batean egonen dira banatuta, dena den inguru biratsu edota ikusteko bisibilitate gutti duten guneeetan maiztasuna haundiagoa izango da.

Derrigorrezkoa da seinaleztatutako bidetik ez ateratzea, ingurugiroan ahalik eta kalte guttien sortze aldera. Betebehar hori ez betetzeak lasterketako epaileak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake.

Seinaleztatutako bidetik irtetzen den parte-hartzaile oro ez da ANTOLAKUNTZAREN ardurapean egonen.

3.4. IBILBIDEKO KONTROLAK ETA DENBORA MUGAK

Helmugan sartzeko gehieneko denbora 10 ordukoa izanen da, hau da arratsaldeko 18ak. Halere ibilbidean zehar bertze 3 ordu muga izanen dira.

ANOA GUNEAK ETA DENBORA MUGAK							
Non	Altuera	Distantzia metatua	Tarteko distantzia	Tarteko desnibela +	Tarteko desnibela -	Denbora muga	Zebitzuak
Erratzu	280m	-	-	-	-	-	-
Gorramakil	1.090m	6km	6km	810m	-	1:45	
Urritzate	330m	14km	8km	-	760m	3:00	
Arieta	810m	18,5km	4,5km	640m	160m	4:30	
Izpegi	680m	23,5km	5km	245m	400m	5:30	
Ixtauz	1.000m	30km	6,5km	700m	400m	7:30	
Soalar	800m	37km	7km	430m	580m	8:45	
Erratzu	280m	45km	8km	40m	512m	10:00	

Lasterketan zehar, lasterkarien edo kanpokoen laguntza eta anoa oro guztiz debekatuta dago, antolatzaileek horretarako ezarritako tokietan izan ezik (anoa-gunea). Ez da erbi lanik onartuko.

3.5. LASTERKETA BERTAN BEHEITI UZTEA

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, lasterkariak ez luke proba bertan beheiti utzi behar pasatze kontroletatik kanpo. Proba bertan beheiti pasatze kontrola baino lehen uztea erabaki duenak, antolakuntzako edozein kideri jakinarazi beharko die.

Lasterkariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (garraioa, dutexak, helmugako anoa-gunea...) etekina ateratzeko.

Lasterketa derrigor bertan beheiti uztea. Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan beheiti uztera behar dezake lasterkaria, egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.

Osasun-zerbitzura jotzen duten lasterkariak haien juzkuaren eta balorazioaren esku gelditzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun-zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izanen dituzte:

- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein lasterkari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).

- Arriskuan ikusten duten edozein lasterkari ebakuatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.
- Edozein lasterkari osasun-zentro batera eraman, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

Osasun-zentro batera eramanez gero, lasterkaria arduratuko da itzuleraz.

Istripu edo lesioagatik oinez kontrol-guneetara iristea ezinezkoa bada eta ebakuazioa beharrezkoa izanez gero, lasterkariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du, salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. Lasterkari bakoitzari, kasu horietan, zein telefono zenbakitara deitu behar duen jakinaraziko zaio (dortsalean inprimatuta egonen da).

Lasterkariaren telefono-konpainiaren estaldura ezagatik zenbaki horiek erabili ezin diren kasuan, doako larrialdietako 112 zenbakia erabiltzea proba daiteke. Beste lasterkarien errespetua eta elkertasuna erabakigarriak izanen dira horrelako kasuetan.

Proba edozein arrazoi dela medio bertan beheiti utzi duten eta itzulera puntuetara ez joatea erabaki duten lasterkariak, igarotze-kontrolako arduradunei erabakia jakinarazi gabe, ez dira jada antolakuntzaren kontrolpean egonen.

3.6.LASTERKETA UZTEKO LEKUAK

Proba bertan beheiti uzten duten eta lesionaturik ez dauden lasterkariak Gorramakil, Urritzate, Izpegi eta Basabarko anoa gunek izanen dituzte lasterketa uzteko lekuak, beraz, beren kabuz eta ahalik eta azkarren leku horietara joan beharko dute garraiatuak izan daitezten.

Garrantzitsua da jakitea lasterkariaren batek bere kabuz lasterketa uzten badu DERRIGORREZ antolakuntzako kideren bat abisuan gainean paratu beharko duela.

3.7.IBILBIDE ALDAKETA

Eguraldi arras txarra eta arras arriskutsua izango balitz, ANTOLAKUNTZAK ordezkotako ibilbide bat izanen du prest. Ibilbide hau zein izango den ez da publiko egingo.

Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, ANTOLAKUNTZAK egokia ikusten duen lekuren batean emanen die erabaki horren berri partaide guztiei.

4.PARTE HARTZEA

4.1.BALDINTZA OROKORRA

Araudi honek dioena betez gero, proba egunean 18 urtetik goitiko kirolari orok parte hartu ahal izanen du, federatua izan edo ez.

4.2. IZEN EMATEAK

Izen-emateak internet bidez eginen dira kronoak enpresaren web orrian ([KRONOAK](#)), kreditu txartelaren bidez, 2026ko martxoaren 5ean 10:00etatik aitzinera.

Eginen diren bi lasterketentzako dortsal mugak eta haien prezioak hauek dira:

- Banakako lasterketa: 150 dortsal, dortsal bakoitza 50 eurota.
- Binakako lasterketa: 150 dortsal (300 partaide), dortsal bakoitza 70 eurotan. Horietarik 50 neska bikoteentzat gordeko dira, bertze 50 bikote mistoentzat eta azken 50ak mutiko bikoteentzat.

Izen emateak honakoa bermatzen du:

- Lasterketan parte hartzea.
- Erantzun zibileko aseguruua.
- Istripu-aseguruua.
- Lasterketan osasun-laguntza.
- Anoa-guneak.
- Txip bidezko kronometraje-sistema.
- Lasterkariaren poltsa.
- Dutzak. Lasterkariak Erratzuko Kanpineko dutzak erabili ahal izanen dituzte.
- Doako garraio-zerbitzua, erretiratuak Erratzura ekartzeko, antolakuntzak zehaztutako puntuetatik.
- Proba akabaileko otordua.

5. KATEGORIAK ETA LEHIAKETAK

Sailkapena egiteko orduan, gizonezkoa eta emakumezkoa bereiztuz, ondorengo kategoriak izanen dira kontutan:

BANAKAKO LASTERKETA

- Orokorra: Parte-hartzaile guztiak.

BINAKAKO LASTERKETA

- Neskak
- Mistoak
- Mutikoak

6. SARIAK

BANAKAKO LASTERKETA

Gizon zein emakumeentzat sari hauek izanen dira:

1. Postua: Txapela, 300€ eskudirutan eta oroigarri bat.
2. Postua: 150€ eskudirutan eta oroigarri bat.
3. Postua: 50€ eskudirutan eta oroigarri bat.

BINAKAKO LASTERKETA

A) BINAKAKO NESKAK

1. Postua: Txapela eta oroigarri bat.

B) BINAKAKO MISTOA

1. Postua: Txapela eta oroigarri bat.

C) BINAKAKO MUTIKOAK

1. Postua: Txapela eta oroigarri bat.

7.DORTSALEN BANAKETA ETA KONTSIGNA

7.1.DORTSAL BANAKETA

Dortsal bakoitza, neurtzeko sistemarekin batera, bakarka banatuko zaio lasterkari bakoitzari. Horretarako, indarrean dagoen, argazkia duen eta haren nortasuna erakusten duen dokumentu ofizial bat aurkeztu beharko du (formatu digitalean ere balio du).

Dortsalen banaketa Erratzuko plazan egingen da, 2026ko urriaren 23an, ortzirala, 19:00tatik 21:00tara, eta, probako egun berean, 06:00etatik 07:30ra, leku berean.

Partaideek uneoro antolakuntzak emandako dortsala eraman beharko dute. Dortsala bular edo sabel aldean eraman behar da, erraz ikusteko moduan eta probak irauten duen denbora guzian. Dortsalak ezin dira tolestu, estali edo aldatu.

7.2.KONTSIGNA

Bi kontsigna zerbitzu izanen dira, bata proba guzira edo 1.zatia egin behar dutenentzat eta bertzea probaren 2.zatia izanen dutenentzat.

1. Irteera/helmuga inguruan kontsigna-zerbitzua izanen da, herriko frontoian hain zuzen ere. Bere ordutegia 6:00tatik 7:30tara izanen da.
2. Izpegin izanen da bigarren kontsigna, probaren 2.zatia egingen dutenentzat.

Berau erabili ahal izateko nahitaezkoa izanen da partaidearen dortsala erakustea eta motxila identifikatua egotea.

Poltsan dagoen materiala ez da egiaztatuko, ondorioz **ez da erreklamaziorik onartuko eta ez da gomendatzen baliozko ezer bertan uztea.**

8.EZINBERTZEKO MATERIALA

Korralitoan sartzerakoan derrigorrezko materialaren kontrola egingen da, beraz derrigorrezkoa izanen da lasterketan parte hartu ahal izateko material dena soinean izatea. Lasterketako edozein puntutan ere kontrolak egin ahal izanen dira eta helmugara derrigorrezko materialarekin sartu beharko da. Parte-hartzaile batek lasterketako edozein puntutan derrigorrezko material guzira ez badu, lasterketako epaileak deskalifikatu egingo du.

Lasterketa egunean inongo adierazpenik ezean, eraman beharreko EZINBERTZEKO materiala honakoa da:

- Mendiko zapatilak
- Ura gordetzeko edukiontzia, 500zl guttienez.
- Edalontzia (Bidoiek balio dute, ez da edalontzirik egonen anoa postuetan).

Gomendatutako materiala ondorengoa izanen da:

- Biziraupenerako tapaki termikoa (1,20 X 2,10 gutxienez).
- Linterna frontala.

ADII: ANTOLAKUNTZAK LASTERKETA BEZPERAN ZEHAZTUKO DU WEB ORRIALDEAN, SARE SOZIALETAN ETA DORTSALA JASOTZERAKO ORDUAN ZEIN IZANEN DEN LASTERKETAN ERAMAN BEHARKO DEN EZINBERTZEKO MATERIALA.

ADII: LASTERKETAN KORRALITOA 7:15TAN IREKIKO DA ETA 7:50TAN HETSIKO DA. IRTEERA ORDURAKO KORRIKALARI DENEK KONTROLA PASATA EGON BEHARKO DUTE. KORRALITOAN GARAIZ SARTZEA GOMENDATZEN DA IRTEERA ORDUA EZ BAITA ATZERATUKO.

9.ANOA GUNEA

Anoa guneen hasmenta eta akabaila puntuak identifikatuak egonen dira.

Anoa gunetan likidua parte-hartzailearen edalontzietara emango da, ANTOLAKUNTZAK ez du inolako edalontzirik eskainiko.

Anoa gune bakoitzean, zabor ontziak egongo dira, hondakin bakoitza nora bota behar den adierazten duten karteekin, DERRIGORREZKOA izanen da zabor bakoitza bere lekura botatzea. Hau betetzen ez duen lasterkaria, lasterketako epaileak kanporatu dezake.

Helmugako anoa guneaz gain, sei anoa gune izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan, produktu energetikoak eta hidratatzaileak egonen dira:

ANOA GUNEAK ETA DENBORA MUGAK							
Non	Altuera	Distantzia metatua	Tarteko distantzia	Tarteko desnibela +	Tarteko desnibela -	Denbora muga	Zebitzuak
Erratzu	280m	-	-	-	-	-	-
Gorramakil	1.090m	6km	6km	810m	-	1:45	
Urritzate	330m	14km	8km	-	760m	3:00	
Arieta	810m	18,5km	4,5km	640m	160m	4:30	
Izpegi	680m	23.5km	5km	245m	400m	5:30	
Ixtauz	1.000m	30km	6,5km	700m	400m	7:30	
Soalar	800m	37km	7km	430m	580m	8:45	
Erratzu	280m	45km	8km	40m	512m	10:00	

10.INGURUMENA

Lasterketa, ia oso-osorik, natura guneei xarmant batean zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea nahitaezkoa izanen da eta debekatuta egonen da edozer gauza lurrera botatzea.

Horretarako, zaborra biltzeko ontziak jarriko dira anoa guneei guzietan. Anoa guneei, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea nahitaezkoa izanen da.

Materialaren kontrola lasterkari guztiei ibilbideko edozein puntutan egin ahal izanen zaie, ausaz edo zoriz, irteera eta helmuga puntuak barne.

Arau hau hausten duena kanporatua izanen da.

11.OSASUN ZERBITZUAK

Antolatzaileek Larrialditarako osasun-zerbitzua jarriko dute ibilbideko lekuri estrategikoenetan. Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko dituzte, horren beharrezkoak diren parte-hartzaileentzat.

Antolakuntzak kirol-arrisku-eraketarako aseguru bat egin du parte-hartzaile guztientzat; beraz, izena ematen duenak oniritzia ematen dio antolatzaileei beharrezkoak diren datuak aseguru-etxeari uzteko, proban zehar ezbeharren bat gertatuz gero, laguntza bermatuta egon dadin.

12.SEGURTASUNA

Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiak hala eskatzen badu edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa-batzordearen adostasunarekin.

Lasterketa ixteko ardura duen erratz-taldeak partaide guztiak igaro direla egiaztatuko du.

Lasterkariaren istripu aseguruak (Lasterketa edo federazioko aseguruak) lasterkariak lasterketan izandako lesioa artatu ahal izateko, lasterketa egunean sorospen zerbitzuak artatua izan dela ziurtatu beharko du lasterkariak.

13.ERANTZUKIZUNAK

Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina lasterkariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Kasu hauetan, parte-hartzaileak beren buruari edo bertzei egindako kalte guzien erantzule izanen dira.

14.IRUDI ESKUBIDEAK

Partaide orok antolatzaileei eta beren babesleei lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete, epe mugarik gabe.

16.ATZENDU EDO GALDUTAKO OBJEKTUAK

Galdu edo atzendutako objektuak: 2026ko Kaxtrail lasterketa akitu ondoren, antolakuntzak hamabortz egunez gordeko ditu lasterketan zehar galdu edo atzendutako objektuak. Jabeak epe horretan jaso beharko ditu bereak, antolakuntzak erabakitako ordutegi eta lekuan. Hamabortz egun horiek igaro ondoren, antolakuntzak ez du mota honetako eskaerarik erantzunen.